



Juan Bautista Agirre



(1742 - 1823)



• Datu biografikoak

Asteasun jaio zen, 1742an. Bertako erretore izan zen hil arte, 1823an.

Haren bizitzako daturik ia ez dago. Beraren obrek jakituria zabalaren jabe zela erakusten dute, ziu-renik Agirre Asteasukoak bere bizitza liburutara emana igaro zuelako.

Jakingarriak

• Idazle handia

Agirre Asteasukoa idazle zaharren artean da. Haren obretan jakituria, adimen argia eta nabari dira. Bere obrei *Erakusaldiak* izena eman zien, hots, gaiak. Izan ere, antolatu zituen, gai bakoitza balitz bezala. Bi lan nagusi utzi zituen: *Sakramentuen Gainean Erakusaldiak* (1803) eta beraren sermoinen bilduma, 1850ean argitaratua.

- gorenetakoa
- atalka
- irudimena
- Gipuzkoako
- irakasteko
- ikasgai bat

• Agirrerren prosa

Asteasukoaren prosa aberatsa da baliabidetan, argia eta Elijio gaiak garatzeko teknika oso landua darabil, bere helburu lortzeko: lehenengo eta behin edo arazoaren aurkezpena egiten du; jarraian, istorio esanguratsuekin hornitzen du, modu erakargarrian; amaitzeko, ondorioa edo konklusioa du, erakusaldi gisa. Eta pasadizo horien kontaketa erakusten du bereziki eite, prosa bikaina eta goi mailakoa.

- tesiaren
- dotorea
- literarioa
- pedagogikoa
- laburbiltzen

Gauza guziak, gizona ez besteak, beren sortzetik basi eta behin ere nekatu gabe ari dira bakoitza bere finari dagokion egitekoan. Eguzkiak, ilargiak, izarrak, lurak, suak, urak, bai zeak eta beste gauza guzietan gau eta egun egiten dute, eta munduak dirauen artean egingo dute beren Egile Handiak eman zien lana.

Eta gauza harritzekoa! Zentzurik ez duten gauzek bain leialki eta zuzen beren finari jarraitzen diote, eta izanik gizona bere Jauna Jaungoikoak adimenaren argitasunez argitu eta apaindu zuen gauza, gizona, hala ere, da bere egile handiaz abaztu, eta zertarako eginga den ongi begiratu gabe, egunak, asteak, urteak... ezerezaren, edo munduko abulkeria eta atsegin zirtzila eta lausoen ondoren igarotzen dituenak; txit gutxi dira, alabaina, gizonen artean beren fin goi eta handiari kontuz jarraitzen diotenak. Gizonaren eskergabekeria itsusi hau aditzera ematen du gizon bertutetsu batek ipuin bonekin.

2 Pasartea. Erantzun honako galderi.

1. Nor da lehen paragrafoan aipatzen den Egile Handia?
2. Lehen paragrafoan, zein da ideia nagusia?
 - Naturako elementuek funtzio bat betetzen dutela.
 - Lurreko elementuen artean, gizakia dela bere egitekoa betetzen ez duen bakarra.
 - Lurreko gauzek etengabe lanean jarraituko dutela.
3. Bigarren paragrafoan, zer dio autoreak? Bi X.
 - Gizakia gauza zentzugabeak baino burugabeagoa dela.
 - Harrigarria dela gizakien jokabide arduragabea.
 - Gizakiari falta zaiola adimenaren argitasuna.
 - Denbora larregi ematen dutela gizakiek dirua lortzeko lanak egiten.

Adarbakoitzarena

Uatu¹ zion bebin, bidez ziboan bati, unikornio edo adarbakoitza deritzan² animalia baserre batek. Ekin zion bidezkoak lasterrari³ baina, bala ere, adarbakoitzak denbora gutxiren barrubean⁴ atxikitze⁵ zorian jarraituko zion. Estu eta larri zen bidezko gaixoa eta, bere estutasunarekin, salto egin zuen bide ondoan ikusi zuen leize izugarri batera, eta han behera ziboala heldu zion leizearen alde batetik zegoen lertxun⁶ baten adarrari, eta geratu zen airean atxikirik.

Begiratzen du gora, eta han zegoen adarbakoitz baserrea, noiz igoko den zain. Begiratzen du behera, eta ikusten du dragoitzar izugarri bat aboa zabaldurik behera erortzen den puntuan irensteko zintzilik dagoen gizon tristea⁷. Begiratzen du lertxunaren sustraira, eta ikusten ditu bi sagu, zuria bata, beltza bestea, sustraiak gutxika janaz ari direla.

Zer pena, zer kezka eta nabigabeak⁸ ez zuan gizon hau inguratuko⁹, bere burua era honetan ikustean? Hala gertatuko zela uste izan zitekeen, baina engainatzen gera. Gure bidezkoa peril¹⁰ hain handian zegoelarik, zegoen, hala ere, kezka eta ardurarik batere gabe, lertxunaren orrietatik erortzen ziren bezetasun goxo baten tantei aboa zabaldurik.

Ez da zentzugabekeria eskerga? Gizon bat, alde guzietatik perilen artean inguratua: goian adarbakoitza haren zain; behean dragoitzarra ezta-rria zabaldurik, gizon honen begira¹¹; lertxun mehar¹² baten adar txarretik atxikirik leizean hondatzeko zori-zorian; eta lertxunaren sustraiari gau eta egun janaz ari zaizkiola bi saguak! Eta trantze honen estuan gure gizona dago lertxun hostoetatik erortzen zaizkion tanto goxoei aboa zabaldurik, eta txoraturik! O itsumen izugarria!

Ongi, kristaua: eta ipuin honek zer aditzera ematen digu, ezpada gurekin egunero gertatzen dena? Bidez doan gizona da jaio den gizon eta emakumea. Adarbakoitza edo unikornioa da gure sortzetik hasi eta beti orpoz orpo¹³ darraigun¹⁴ heriotza. Leizea da mundu galdu hau, eta leize honetan sarturik gizona itxirik dago, edo zintzilik lertxun baten, edo bizitzaren adar mehe bate-tik. Gure bizitzari beti ari zaizkio puska kenduaz bi sagu, zuria bata, beltza bestea, hau da, gaua eta eguna, eta behera begiratzen badugu ikusten dugu dragoi bat, edo infernua, bere ezta-rritzar izugarria zabaldurik, gu irentsi nabirik. Eta, hala ere, gu bizi gera lertxunaren orrietatik, edo gure bizitzaren hostoetatik erortzen diren zenbat tanto goxori aboa zabaldurik, txoraturik, eta aurkitzen garen peril handiari begiratzen ez diogula, eta zertarako gure Egile on maitagarriak bemen ipini gaituen abaztuak. Ez ote gara, neure kristauak, noizbait zentzatuko¹⁵?

3

Bilatu lauki beilegian testuan markaturik dauden hitzen sinonimoak edo egituren parekoak.

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6
- 7
- 8
- 9
- 10
- 11
- 12
- 13
- 14
- 15

- usaindu
- deitzen den
- korrikari
- buruan
- harrapatzeko
- zuhaitz mota
- koitadua
- arregurak
- hartuko
- arriku
- zain
- ahul
- hur-hurretik
- jarraitzen digun
- zentzudun bihurtuko

4

Adarbakoitzarena. Testuaren iruzkina.

1. Lehen paragrafoan, zelan daude adizkiak, orai-nean ala iraganean?
2. Bigarren paragrafoan, aldiz, adizki batzuk orainean daude. Idatz itzazu batzuk.
3. Zein helbururekin aldatzen du adizkien denbora?
4. Nola hasten dira hirugarren, laugarren eta bosgarren paragrafoak?
5. Azter ezazu laugarren paragrafoa. Galderaren ondoren zelako esaldiak pilatu ditu?
6. Galderazko eta harridurazko esaldien maiztasunak, zeren tankera ematen dio testuari?
7. Zer egiten du autoreak azken paragrafoan?
8. Nola itxi ditu autoreak istorioa eta azalpena?
9. Bi testuak kontuan hartuta, azalpenaren egitura orokorra nolakoa da? Hiru urrats.